Zurekin

# ZUMARRAGA

gara

ehbildu



## JOSU AZTIRIA URTARAN

Humanitateak-enpresan lizentziatua
eta enpresen zuzendaritza aurreratuan masterra.
Kudeatzailea. Gizarte-ekintzailea.

INICIATIVA | SOLUCIONES



**Juan Karlos Izagirre**

Foru hauteskundeetako zerrendaburua

«Gure herriaren etorkizuna gaur bertan hasiko gara eraikitzen»





JOSU AZTIRIA

# «Ardurak hartzeko prest gaude»

**Zumarragak jator hartzen gaitu oraindik ere, baina lekutan geratu dira langintza aurrerapena inon ez bezalakoa genueneko garai hura. Are gehiago, XXI. mendea geurera 2016ko apirilean heldu zela ere irakurri genuen, herriko ardatz eraldatzaileetako batek, Orbegozok, ateak behin betiko itxi zituenean. Bere momentuko gatz eta graziaz harago, hausnarketa batera eraman gintuen txioa izan zen hura, ez atzera errudun edo akats bila hasteko, zeruertz berri horri begiratzeko baino. Hortzimugara begira, beraz, Josu Aztiriarekin jarri gara. (Zumarraga, 1978).**

**Nola imajinatzen duzu Zumarraga hemendik 10-20 urtera?**

Nola imajinatzen dugun baino, nola izatea nahi dugun da ongi pentsatu behar duguna. Ni oso harro nago zumarragarra izateaz eta bertan bizitzeaz, baina nik bertan bizitzeko egin dudan aukera egingo al dute etorkizunean gure ondorengoek? Nik kezka eta ardura handiarekin bizi dut hau guztia.

Nik nahiko nuke Zumarraga bat komunitate-sen indartsu batekin, auzolana eta zaintza komunitarioa ardatz duena; adinekoentzat segurua eta etxean bizitzeko aukera emango diena; familia eta haurrentzat gozagarria; trebatzeko leku paregabe bat; puntako kirol instalakuntzekin; tren askorekin Euskal Herri osora konektatua; bizikletan mugitzeko aukera emango duena; jatorri anitzetako herritarrentzat harrera lekua; auzoen artean konektatua; euskara ardatz izanik hizkuntza-aniztasuna babestuko duena; kulturalki bizia eta interesgarria; bizitzeko hautu desberdinen topagunea; berdinzalea eta inklusiboa. Harrotasunez bizitzeko Zumarraga bat. Giza eskubideekiko konpromiso sendoa izango duena, urraketa ororen egia, aitortza eta erreparazioan oinarritutako memoria partekatu baterantz joango dena, preso diren herrikideak gurekin izango dituen herria. Erreferentzia berdinzale, jasangarri eta bizi bat Gipuzkoan eta Euskal Herrian. Gainera, uste dut etorkizuneko Euskal Herria Zumarraga bezalako herrietan egosten dela.

Baina, galdera horri nire erantzuna eman dizut eta uste dut erantzun kolektibo bat ematea dagokigula, partekatutako iparrorratz bat garatzea izango da gure herriak hurrengo urteetan izango duen egiteko garrantzitsuena. Horregatik proposatzen dugu 2030 bitartean plan estrategiko bat garatzea eta Hiri Antolamendurako Plan Orokor berri bat egitea gizarte-eragileekin batera.

Eta bide horretan, gure herriaren erradiografia errealista bat egitea ezinbestekoa da, beste alde batera begiratu gabe.

**Eta zein da zure egoeraren diagnostikoa?**
Adierazle sozio-ekonomikoei dagokionez Gipuzkoarekin alderatuz ez gaude ongi. Gipuzkoako batez bestekotik gora gaude langabezian (are handiagoa emakumeen eta gazteen langabezian); batez bestekotik behera errentan; batez bestekotik behera gaude formazio-mailan. Aldagai demografikoei dagokionez ere, biztanleria ere behera doa etengabe (Gipuzkoan aldiz gora) eta zahartze-prozesua are handiagoa da. Auzoen arteko lotura ere ahula da eta eremu asko geldieik daude ekimen publikorik hartu ez delako. Ez dira etorkizuna eraikitzeko baldintzak sortu.

Baina era berean bizirik gaude, kapital sozial eta komunitarioa indartsua dugula uste dut, eta potentziala handia dugu. Gainera Gipuzkoaren eta Euskal Herriko ardatz komunikatiboan kokapen estrategikoa dugu, ospitaleak trakzio-papera bete dezake eta ekonomia molde-berriak sortzeko aukerak ditugu ekonomia zirkularra edo osasungintzaren alorrean. Eta ohituak gaude eraldaketara, aniztasunean bizitzera eta herri-nekazaria izatetik industria herri garrantzitsu izatera pasa ginen, gure izaera errotik aldatuz eta moldatuz, baina gure sustraiak zaintzeaz ahaztu gabe. Eta behin egin bagenuen, berriro ere egingo dugu.

**Inflexio-puntuan gaudela diozu eta zeintzuk beharko lukete etorkizuneko lan-ildoak?**
Hiru ildo eta lan egiteko modu bat zango ditugu datozen lau urteotan: Bedintasuna eta ongizatea gure politika guztien muinean egotea; Zumarraga herritar eta etorri berri guztion topagune indartsu eta berritzailea izatea; eta horiek bilduko dituen kanpora eta barruan konektatuko gaituen Zumarraga jasangarria eraikitzea.

## «Denon artean iparrorratz konpartitu bat ezartzea da gure lehentasuna»

Hau da, bizitzeko, izateko eta elkarrengandik hurbil egoteko aukera emango digun Zumarraga eraikitzea.

Eta ildo horiek aurrera eramateko gobernantza-eredu irekia, aurreratua eta kooperatiboa martxan jartzea ezinbestekoa izango da. Aldaketa handia beraz, oraingo gobernu-eredua errotik aldatzea baitakar, dudarik gabe.

Udalaren ateak herritarroi parez-pare zabalatzea behar-beharrezkoa ikusten dugu, gardentasuna eta parte-hartzea gure oinarrizko printzipioak dira.

Ohituta gaude ardurak hartzera gure bizitza profesionalean eta Zumarragako bizitza sozialean. Gogoa badugu, gaitasuna erakutsi dugu eta udalgintzan ere ardurak hartzeko prest gaude.





**Josu Aztiria Urtaran**

**Zumarraga, 1978**

"Humanitateak-enpresan" lizentziatua da Aztiria eta "Enpresen lidergo eta zuzendaritza aurreratuan" masterra du. Bere ibilbide profesionala ekonomia sozialarekin eta euskararen garapenarekin lotutako enpresetan kudeatzaile bezala garatu du.

Zumarragako bizitza sozialean ere asko inplikatu den pertsona da Josu. Zintzo Mintzo euskara elkarteko lehendakaria izan zen, baita Otamotz eta Goierriko Hitzaren proiektuen bultzatzailea eta, azkenaldian, Urola Garaiko garapenarekin lotutako ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak sustatzen ibili da.

# «Estamos preparados para asumir responsabilidades»

**¿Cómo se imagina Zumarraga de aquí a 10-20 años?**
Más que cómo nos la imaginamos, lo que debemos pensar bien cómo queremos que sea. Yo estoy muy orgulloso de ser zumarragarra y de vivir aquí, pero ¿eligirán las nuevas generaciones vivir en Zumarraga? Es algo que me preocupa mucho.

Yo quisiera una Zumarraga con una identidad de comunidad fuerte, que tenga el auzolan y el cuidado comunitario como eje; segura para la gente mayor, con opciones de vivir en casa, para el disfrute de las familias, un sitio para formarse, con instalaciones deportivas de primer nivel, un lugar de acogida para la ciudadanía procedente de diferentes orígenes, que proteja la diversidad de lenguas con el euskara como eje, viva e interesante en lo cultural, igualitaria e inclusiva... Una Zumarraga para vivirla con orgullo. Además, creo que la Euskal Herria del futuro se cuece en pueblos como Zumarraga.

Pero esa es una respuesta personal y creo que toca dar una respuesta colectiva, desarrollar una brújula compartida será nuestro mayor reto en los próximos años. Por eso proponemos un plan estratégico hasta 2030 y elaborar un nuevo Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) con la ciudadanía y agentes sociales. Y para ello, es imprescindible hacer una radiografía realista de nuestro pueblo, sin mirar hacia otro lado.

**¿Y cuál es su diagnóstico?**
Si comparamos los parámetros socio-económicos con Gipuzkoa, no estamos bien. Estamos por encima en paro (sobre todo en el juvenil y el femenino) y por debajo en cuanto a renta y en nivel de formación. En parámetros demográficos, la población baja constantemente mientras sube en Gipuzkoa y el envejecimiento también es mayor. La conexión entre barrios también es débil y muchas zonas están paradas porque no ha habido iniciativa pública. No se han creado condiciones para el futuro.

Pero estamos vivos, tenemos un capital social y humano fuerte y un gran potencial. Además, tenemos una situación estratégica dentro de Gipuzkoa y Euskal Herria, el hospital puede realizar un papel tractor y tenemos opciones de crear nuevos modelos económicos dentro de la economía circular y la sanidad. Y estamos acostumbrados al cambio, a vivir la diversidad. Pasamos de ser un pueblo rural a ser un importante núcleo industrial, adecuando nuestra personalidad, pero sin olvidarnos de cuidar nuestras raíces. Y, si lo hicimos una vez, lo volveremos a hacer.

**Dice que estamos en un punto de inflexión, ¿Cuáles serían los ejes de cara al futuro?**
La igualdad y el bienestar estarán en la base de todas nuestras políticas públicas; queremos una Zumarraga con un un sentido de comunidad fuerte y abierta; queremos crear una ciudad sostenible que nos conecte hacia dentro (barrios y centro), pero también hacia fuera. Y para sacar todo eso adelante, será necesario un modelo de gobernanza abierto y cooperativo. Es decir, dar un cambio radical respecto al actual.

Estamos acostumbrados a asumir responsabilidades en nuestra vida profesional y en la vida social local. Tenemos ganas, hemos demostrado capacidad y estamos preparados para asumir responsabilidades en la vida municipal.

Zumarragak behar dituen proposamenak | 01

# Birika berri bat Mertzedarietan: Eitza eta herrigunea konektatuz, aisialdirako, kulturarako eta bizitzeko arnasgune berri bat sortu



Porlan eta errepide artean, Zumarragaren erdiguneak badu oasi txiki bat, Mertzedarien konbentua eta bere inguru zoragarriak. Hitzarmen berri baten bidez, gune horren kudeaketa Udalarena izatea proposatzen dugu, Eitzako aldapan dagoen horma eraitsi eta bertako lorategiak herritaren eskura jartzeko.

Estrategikotzat jotzen dugun gune honek, gainera, erabilera berrietarako baldintzak eskaintzen ditu. Esaterako, bizitzeko proiektu berritzaileak jarriko ditugu: gazteentzako etxebizitza komunitarioak, adinekoentzat etxebizitza dotazionalak eta cohousing proiektuak. Muga batzuk izanagatik ere, autonomoak diren eta bizitza beste pertsona batzuekin konpartitu nahi dutenei bideratutako etxebizitzak eraikitzea proposatzen dugu.

Zumarragari oxigenoa emango dion gune bat irudikatzen dugu bertan eta eliza kultura-eskaintza garaikidea eta musika-kontzertuetarako baliatu ahal dela iruditzen zaigu.

Eta gune honetaz ari garela, ezin ahaztu parez-pare dagoen Ispilla kiroldegia. Gaur egungo beharrei justu-justuan erantzuten dien zaharkitutako eraikin horren eta inguruko kirol-azpiegituren azterketa egingo dugu herritarren iritziak jasoz, epe-luzeko begiradarekin, kirol-eskaintza anitzagoa eskaintzeko asmoz.

## Laburrean

- Hitzarmen bidez eremua kudeatu, horma eraitsi eta herritarren eskura jarriz.
- Bizitzeko proiektu berriak: gazteentzako pisu komunitarioak eta adinekoentzat etxebizitza dotazionalak.
- Eliza kultura-eskaintza garaikidea eta kontzertuetarako baliatu.
- Kirol-azpiegituren azterketa, eskaintza anitzagoa eskaintzeko.

## Un nuevo pulmón en Mercedarias: crear un nuevo espacio vital para el ocio y la cultura conectando Eitza y el centro

En medio del cemento y el asfalto, el centro de Zumarraga guarda un pequeño oasis, el convento de las Mercedarias y sus preciosos jardines. Proponemos que, vía convenio, la gestión de ese espacio pase a ser municipal, derribando el muro existente en la cuesta de Eitza y poniendo el espacio en manos de la ciudadanía.

Además, este espacio que estimamos estratégico, nos ofrece múltiples y estupendas condiciones para nuevas utilidades. Por ejemplo, proponemos proyectos novedosos en materia de vivienda; como viviendas comunitarias para jóvenes, pisos dotacionales para personas mayores y proyectos de cohousing. Proponemos la construcción de viviendas para aquellas personas que, a pesar de tener algunas limitaciones, son capaces de llevar una vida autónoma y que quieran compartirla con otras personas.

Visualizamos un espacio que dote de oxígeno a Zumarraga, por lo que entendemos que la iglesia puede ser utilizada como centro de cultura contemporánea y sala de conciertos.

Y hablando sobre esta zona, no podemos olvidarnos del Polideportivo Ispilla, un edificio anticuado que responde con dificultades a las necesidades actuales. Haremos un estudio de ésta y el resto de infraestructuras deportivas, recogiendo las opiniones de la ciudadanía para, con una mirada a medio-largo plazo, ofrecer una oferta deportiva mucho más amplia y que responda a la cada vez mayor demanda de este tipo de espacios.

- Gestión municipal de la zona mediante convenio, derribo del muro y poner los jardines en manos de la ciudadanía.
- Nuevos proyectos de vivienda: pisos comunitarios para los jóvenes y dotacionales para los mayores.
- Utilización de la iglesia como centro para cultura contemporánea y sala de conciertos.
- Estudio del polideportivo Ispilla y del resto de las infraestructuras deportivas, de cara a poder ofrecer una oferta más amplia a medio-largo plazo.

Zumarragak behar dituen proposamenak | 02

# Herri hezitzailea: herritar guztientzat trebatzeko aukerak zabaldu eta erraztu

UGLEk etorkizuneko eskualdeko berrikuntza-poloa izan behar du. Horretarako alboan dagoen Faustino Orbegozo geriatriko zaharra berritu eta UGLEren hazkunderako gaitzeko aukera ikusten diogu.

Emakumeen eta gazteen laneratzeak lehentasuna behar du izan. Familientzat laguntzak sortuko ditugu seme-alaben eskolaz kanpo jarduetarako eta prestakuntza ikastaroetarako, inork ezin du, pobreago jaiotzeagatik, betirako atzean geratu.

10 eta 19 urte bitarteko gaztetxo eta nerabeei zuzendutako ikerketa-zentro bat sortzea da gure egitasmo berritzaileenetako bat, berrikuntza eta ikerketaren munduan murgildu daitezen. Baita hezkuntza-mahai bat bi herrietako ikastetxe guztien arteko elkarlana bultzatzeko.



## Un pueblo educador: facilitar y ampliar oportunidades de formación para toda la ciudadanía

*UGLE debe ser un polo de innovación. Para ello, vemos que el antiguo geriátrico Faustino Orbegozo, muy próximo al actual edificio, ofrece posibilidades de ser reformado y de habilitarlo para la formación.

*La inserción laboral de jóvenes y mujeres es una prioridad. Crearemos ayudas para las actividades extra escolares y formación de las familias. Nadie puede quedarse atrás.

*Queremos crear un centro de investigación dirigido a jóvenes de entre 10 y 19 años, donde trabajar para desarrollar su creatividad y llevar a cabo investigaciones. Desarrollar una mesa de educación con todos los centros de los dos pueblos, para fomentar la colaboración entre todos ellos.



Zumarragak behar dituen proposamenak | 03

# Bihotza indartu: Zumarragako plaza eta inguruak herritarron topagune biziak bihurtuko ditugu.

Zumarragak bizitzeko bihotz indartsu bat behar du eta horretarako beharrezkoa ikusten dugu plaza eraberritzea eta Legazpi-Soraluze kaleak biziberritzea, merkatari eta bizilagunekin batera.

Plaza erabat baldintzatzen duen Miguel Lopez de Legazpiren estatuaren leku aldaketa eta egokitzapenen erabakia herri-galdeketa baten bidez egingo dugu.

Merkataritza biziberritzeko, lokal hutsen birgaitzea proiektu berrietarako; artisau eta sortzaileentzat aukera berriak eta tokiko moneta osagarria martxan jartzea proposatzen ditugu.

Haur eta familiek gune berri bat behar dute eta larunbatetan aisialdi eta kultur eskaintza handitu.

Bertatik bertara proiektua indartu eta baliabideak jarri.



## Fortalecer el corazón: convertir la Plaza Euskadi y sus alrededores en puntos de encuentro vivos para la ciudadanía

Zumarraga necesita de un corazón latente y para eso vemos imprescindible la renovación de la Plaza Euskadi y revivir las calles Legazpi y Soraluze, junto a vecinos, vecinas y comerciantes.

La estatua de Miguel López de Legazpi condiciona irremediablemente cualquier acción en la plaza, por lo que proponemos un referéndum en torno a su ubicación o su adecuación al entorno.

Para la revitalización del comercio nuestras propuestas son la adecuación de locales vacíos para nuevos proyectos, ofrecer nuevas oportunidades a artesanas y artesanos y la puesta en marcha de una moneda local complementaria.

Los niños, niñas y las familias necesitan un nuevo espacio, ampliando la oferta de ocio y cultural los sábados.

Zumarragak behar dituen proposamenak | 04

# Etorkizuna irudikatzeko labe berri bat: ZumarragaLab(e) proiektua Ipintza eta Kalebarren eremuan berrikuntza soziala bultzatzeko laborategia



Urte asko dira, gehiegi, Kalebarren eta Ipintza bezalako eremu handi eta garrantzitsu bat geldirik eta utzita dagoena eta gune osoaren birgaitzea eta garapena bizkortzeko lidergo instituzionala hartzeko garaia heldu dela uste dugu. Ingurune honek izan duen utzikeriaren aurrean, lidergo hori hartzeko prest gaude.

Hasteko, onartutako Plan Bereziaren eremuaren birgaitze eta berritzearekin jarraituko dugu, herriaren gune estrategiko honen gaurkotzean sakonduz.

Baina, era berean, Kalebarren-Ipintza Zumarragaren etorkizuna irudikatzeko gune interesgarria izan daitekeela uste dugu eta Berrikuntza Sozialerako Laborategia martxan jarriko dugu bertan, Zumarragaren industri historian horren garrantzitsuak izan diren Badiola eta Forjas eremuetan.

Ezin gara, ordea, gune eremu edo berri hauek diseinatzearekin geratu eta eraikinak edukiz ere bete behar ditugu. Hala, alor hauetako proiektuak garatzeari ekingo genioke: Zaintzen eta zerbitzu sozio sanitarioen berrikuntza, –kooperatiba integral baten sorrera aurreikusten dugu– energia berriztagarriak eta ekonomia zirkularra, ekonomia soziala, kultura eta sormena edo aniztasuna bultzatuko dituzten proiektuak, beti ere ekonomiaren aldaketa eta bizimodu duinak oinarrian ipiniz.

## Laburrean

*Geldirik dagoen eremu honen birgaitze eta garapena bizkortzeko lidergo instituzionala hartu.

*Parte zaharraren birgaitze eta berritzearekin jarraitu.

*Berrikuntza sozialerako Laborategia martxan jarri Badiola-Forjas eremuan

- Zaintzen eta zerbitzu sozio sanitarioen berrikuntza
- Energia berriztagarriak eta ekonomia zirkularra
- Ekonomia soziala
- Kultura eta sormena
- Aniztasuna bultzatzeko proiektuak

## Un nuevo horno para representar el futuro: El proyecto ZumarragaLab(e) en Ipintza Kalebarren, un laboratorio para impulsar la innovación social

Son muchos años ya, demasiados, en los que un espacio tan grande e importante como Kalebarren-Ipintza sigue estancado y creemos que ya va siendo hora de tomar el liderazgo institucional para activar la renovación y la evolución de todo el entorno. Tras la dejadez que ha sufrido esta zona, estamos dispuestas a tomar ese liderazgo.

Para empezar, seguiremos con la rehabilitación de la zona aprobada en el plan especial. Pero, del mismo modo, creemos que Kalebarren-Ipintza puede ser un marco inmejorable para visualizar el futuro de Zumarraga y pondremos en marcha un Laboratorio para la Innovación Social, en la zona una zona tan importante en la historia industrial del municipio como la de Badiola-Forjas.

Pero no nos podemos limitar a diseñar nuevas zonas o edificios, sino que hay que dotar estas nuevas infraestructuras de contenido y por ello comenzaremos a desarrollar nuevos proyectos en torno a los cuidados y los servicios socio-sanitarios, con la creación de una cooperativa integral, las energías renovables, la economía circular, la cultura, la diversidad y la creatividad, siempre con el cambio económico y las vidas dignas como eje.

*Tomar el liderazgo institucional para la rehabilitación de esta zona paralizada

*Seguir con la reviltalización de la parte vieja

*Puesta en marcha del Laboratorio para la innovación social en Badiola-Forjas.

-Innovación en cuidados y en servicios socio-sanitarios

-Energías renovables y economía circular

-Economía social

-Cultura y creatividad

-Proyectos para impulsar la diversidad

Zumarragak behar dituen proposamenak | 05

# Arteria berde bat eraiki:

## Eraztun berde urbano bat, mugikortasun jasangarria eta auzoak konektatuz

Auzo eta kale guztietan bizi diren herritarren ongizatea bermatu eta auzokako informazio-bilerak egingo ditugu sei hilabetero.

Euskal Herria hiribidearen bulebarizazioari ekingo diogu, pasabide bat eraikiz eta Ospitalera eskailera mekanikoak eraikiz.

Arcelorren eskubide munizipalak berreskuratu eta etorkizuneko erabilera industrialerako aukerak sortu. Arcelorren sarrera tokiz aldatu, ibilgailuen joan-etorria gutxituz.

Auzo guztiak konektatuko dituen bide-gorri sarea eta autobus-zerbitzu elektrikoa jarriko ditugu. Trenbidea estaltzearen aukera aztertu.

Egokiak diren eraikinetan eguzki-plakak jarriko ditugu, etxeetan efizientzia energetikoa hobetzeko laguntzak jarriko ditugu eta energia-sorkuntza proiektuak sortuko ditugu.

Udaleko ibilgailuak elektrikoak bihurtuko ditugu eta kargatzeko-guneak sortuko ditugu.



## Arteria verde: Un anillo verde, conectando los barrios y la movilidad sostenible

Garantizar el bienestar de toda la ciudadanía que reside en todas las calles y barrios, haremos además reuniones informativas semestrales en los barrios.

Comenzaremos la bulevarización de la Avenida Euskal Herria, creando un paso y construyendo escaleras mecánicas al Hospital.

Recuperar los derechos municipales de Arcelor, creando oportunidades industriales a futuro. Cambiaremos la entrada a Arcelor, reduciendo el flujo de vehículos.

Construiremos una red de bidegorris que conecte todos los barrios y un servicio de autobús eléctrico. Estudiar el posible soterramiento de las vías del tren.

En los edificios aptos instalaremos paneles solares, habrá ayudas para la eficiencia energética en hogares y fomentaremos proyectos de generación de energía renovable.

Sustituiremos los vehículos municipales por vehículos eléctricos. e instalación de puntos de recarga.

Seremos cada vez más autosuficientes y un pueblo referente en la lucha contra el cambio climático y la transición ecológica



Zumarragak behar dituen proposamenak | 06

# Ehun soziala indartu:

## Auzolan komunitarioan, aniztasunean eta zerbitzu sozialetan erreferentziazko herria bihurtu

Gizarte-zerbitzuen saila indartu kontratazio berriekin eta gizarte-laguntzak hobetu behar berriei etengabe erantzuteko. Herritarrik ez babesik gabe. Ehun-soziala aktibatu eta indartzea lehentasuna izango da.

Aniztasuna modu integralean landu, bizikidetza eta adiskidetze kultura bultzatzeko. Aniztasun Mahaia martxan jarri.

Esperientzien eskola berreskuratu eta adinekoen kontseilu soziala sortu.

Emakumeen Etxearen erreferentzaltasuna bilatu, emakumeen udal kontseilua sortu eta berdintasun-plana udal politika guztietan ezarri.

Euskara ikastea doakoa izango da euskararen ezagutza unibertsala izan dadin eta euskaraz bizitzeko arnasguneak sortuko ditugu.

Kontratazio publikoetarako klausula sozialak ezarri.



## Reforzar el tejido social: convertir Zumarraga en un pueblo referencial en el trabajo comunitario, diversidad y servicios sociales

Reforzar el área de servicios sociales con nuevas contrataciones y mejorar las ayudas sociales para responder continuamente a las nuevas demandas continuamente. Ninguna persona sin protección. Activar y reforzar el tejido social será una prioridad.

Trabajar la diversidad de un modo integral y puesta en marcha de la Mesa de la Diversidad.

Recuperar la escuela de la experiencia y crear el consejo social de la gente mayor.

Buscar que la Emakumeen Etxea sea referencial, crear el consejo municipal de la mujer y trasladar el plan de igualdad todas las políticas municipales.

Aprender euskera será gratuito.

Pondremos cláusulas sociales a las contrataciones públicas.

# Zurekin ZUMARRAGA gara

INICIATIVA | SOLUCIONES



Iñigo Garrido Saenz • Mikel Elgarresta Kastejon • Iosu Amenabar Sancho • Belen Baztarrika Juanes • Juan Carlos Lázaro Lesmes • Lourdes Esnaola Garate • Arantza Corrales Gutierrez • Pili Azcona Juaristi • Maite Ausin Unzurrunzaga • Ainhoa Osinalde Zaldua • Josu Aztiria Urtaran • Idoia Agirre Castaño • Iker Mendizabal Telleria • Aritz Elgarresta Berasategi • Hafsa Qourchi Khaldoun • Eñaut Urbizu Etxabarri

## Zumezko herri-aginte berria: Gobernantza-eredu irekia, aurreratua eta kooperatiboa izango duen herria.

Zumezkoa izango da Zumarragako herri-agintearen ikur berria. Erraz moldatzen da zumea, badaki inguruari aditu eta horren arabera jokatzen, baina ez da berehalakoan hautsiko. Moldagarria da, bai, baina ez hauskorra. Zaildua, ez zurruna. Geure geurea da gainera, Zumarragaren ondarea.

✱ Etorkizuna diseinatuko dugu adimen kolektiboarekin:
- Zumarraga 2030 plan estrategikoa eta Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria egingo dugu gizarte-eragileekin.
- Legegintzaldi-plana eta auditoria publikoak martxan jarriko ditugu.

✱ Parte-hartze gune iraunkorrak sortu eta Udala irekiko dugu
- Berdintasunerako udal kontseilua.
- Aniztasun Mahaia, bizikidetza eta adiskidetze kultura bultzatzeko.
- Gazte Foroa.
- Adinekoen Foroa.
- Udal batzordeak ireki eta araudia berritu.
- Auzoetako bilerak 6 hilabetero.

✱ Zerbitzu hobea eta kudeaketa aurreratua:
- Zu! Leihatila Bakarreko proiektua.
- Kiroldegia, harrera eta liburutegiaren ordutegiak zabaldu.
- Gazteentzako informazio bulegoa.
- Udal aldizkaria sortu eta webgunea berritu.

## Construyamos Zumarraga con nuevos mimbres. Un nuevo modelo de gobernanza abierto, avanzado y cooperativo.

✱ Diseñando el futuro con inteligencia colectiva::

- Plan estratégico Zumarraga 2030 y un nuevo Plan General de Ordenación Urbana (PGOU).

- Plan de legislatura y auditorías públicas.

✱ Creación Espacios estables de participación ciudadana

- Consejo municipal de Igualdad.

- Mesa de la Diversidad.

- Foro de jóvenes.

- Foro de mayores.

- Abrir las comisiones y renovar el ROF.

- Reuniones semestrales en todos lo barrios.

✱ Mejorar la atención ciudadana y gestión avanzada:

- Proyecto de Ventanilla única Zu!

- Ampliar los horarios de polideportivo, atención al público y biblioteca.

- Oficina de información juvenil.

- Crear una revista municipal y renovar la web.



Zurekin Gipuzkoa

FORU HAUTESKUNDEAK • ELECCIONES FORALES

ehbildu

## Hay mucho que mejorar en Gipuzkoa

Gipuzkoa es un territorio maravilloso donde vivir, pero aún hay mucho que mejorar. Queremos una Gipuzkoa que ponga a las personas en el centro.

Una Gipuzkoa que apueste por la industria; por unas condiciones laborales dignas; por un servicio de calidad para nuestros mayores; por el comercio local; por una igualdad real... ¡Una mejor Gipuzkoa!

**Trabajaremos para que la Diputación Foral tenga en cuenta a toda la ciudadanía guipuzcoana.**



**Juan Karlos Izagirre**
Gipuzkoako foru hauteskundeetako zerrendaburua
Candidato a Diputado General de Gipuzkoa

## «Aukera eta ahalmen handiko herrialdea da Gipuzkoa»

Gipuzkoa bizitzeko lurralde zoragarria da. Baina, are zoragarriagoa izan daiteke. Horixe da EH Bilduren helburua, Gipuzkoa hobe eta zoragarriagoa eraikitzea. Pertsonak erdigunean jarriko dituen Gipuzkoa. Industria eta lan baldintza duinen alde egingo duena. Adinduen kalitatezko zaintzaren alde egingo duena. Tokiko merkataritzaren alde egingo duena. Aberastasunaren banaketa justuaren alde egingo duena. Benetako berdintasunaren alde egingo duena. **Gipuzkoa hobetzearen alde lan egingo dugu!**

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK • ELECCIONES EUROPEAS

Orain ERrEPuBlikak

## «Europako Parlamentua, lanerako beste gune bat EH Bildurentzat»

Europako Parlamentua lanerako beste gune bat da EH Bildurentzat: Euskal Herriaren aitortza internazionalaren alde lana egiteko; konponbidearen eta preso politikoen eskubideen alde egungo aliantzak sendotzeko eta berriak sortzeko, ezkerreko kideekin batera, EH Bilduren lan, ikuspegi eta borroka feminista indartzeko; eta gure herritarren aldarrikapenak eta beharrak Europara eramateko, zubi lana eginez, betiere, esparru guztietan herritar guztien eguneroko bizitza hobetzeko alternatibak eta eredurik aurrerakoienak defendatuz Europako Parlamentuan.

Orain Errepublikak
Ara Repúbliques
Agora Repúblicas
Ahora Repúblicas

## Europa, otro espacio de trabajo para EH Bildu

El Parlamento Europeo es otro espacio de trabajo para EH Bildu: para trabajar por el reconocimiento internacional de Euskal Herria; para reforzar el trabajo a favor de la resolución del conflicto y los derechos de todas y todos los presos políticos, y crear nuevas alianzas; para avanzar desde una perspectiva feminista a favor de la igualdad entre hombres y mujeres junto con las fuerzas progresistas europeas; para mejorar el día a día de las ciudadanas y los ciudadanos de Euskal Herria.

**UDAL HAUTESKUNDEAK**
Elecciones municipales

**FORU HAUTESKUNDEAK**
Elecciones forales

**EUROPAKO HAUTESKUNDEAK**
Elecciones europeas

ehbildu

@ehbilduzumarrag EH Bildu Zumarraga zumarraga@ehbildu.eus Euskadi plaza, 4